

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, elementu batzuk ezinbestekoak ditugu, zerbitzua aurrera ateratzeko behar-beharrezkoak direnak.

Alde batetik, jakinda gure zerbitzua sukalde baten inguruan gertatzen dela sukaldeko instalakuntza egokiak behar ditugu, tresna elektronikoak (labea, sua, izozkailua...), baita ura eta argindarrera lotuta egotea. Horrez gain, sukaldatzeko materiala ere beharrezkoa dugu (mahai-tresnak (burruntzale, sardexka... eta antzekoak)). Gainera, klaseak egiteko ikasleentzat beharrezko dugu lan egiteko eremu bat, mahai luzeak, suak, hozkailu handiak... Hau guztia lokal batean kokatuko dugu, eta horretarako nahiko espazio handia izan beharko dugu. Gainera, jangela txiki bat ere jarri nahi dugu, bertan jendeak jan dezan.

Bestetik, sukaldatu behar dugun horretan, produktuak behar ditugu, eta produktu horiek bertakoak izango dira, hau da Km0. Gure aliantzek helburu hori islatzen dute eta horregatik dugu harremana zenbait enpresekin, esate baterako, Labore. Ildo beretik, eskuratuko ditugun elikagai guztiak kalitate onenekoak izango dira eta ekologikoak, gure bezeroei dieta osasuntsua gerturatu nahi diegulako.

Horrez gain, sukaldari adituak izango ditugu. Horrela gure bezeroei sukaldaritzaren inguruan behar bezala dakitenek erakutsiko diete. Horrekin gure bezeroek ahalik eta esperientzia hoberena, hezigarriena eta profesionalena izateko. Gainera, nutrizionisten aholkularitza baliatuko dugu, bezeroek dieta orekatua izango dutela ziurtatzeko.

Amaitzeko, gure bezeroekin harremanetan jartzeko, eta azken batean, gure zerbitzua arrakastasua izan dadin, webgunea ezinbestekoa dugu. Gu arduratuko gara bezeroei edo jendeari gure eskaintzaz jakinarazteaz eta hori egi bihurtzeko bidea webgunea da.